



Rolls Royce

Ez ditu hegazkinetako motoreak saltzen, horren orde, "potentzia orduko" saltzen du. Motorraren hegaldi orduen arabera ordaintzen dute bezeroek.



Philips

Ez ditu lanparak bakarrik saltzen, "argia" saltzen du. LED argiztapen zerbitzua eskaintzen du, Schiphol aireportuan (Amsterdam) erabiltzeko, besteak beste.




Tetra Pak

Elikagai eta edariantzako ontziratze eta prozesatze irtenbideak eskaintzeaz gain, bezeroei ekoizpen prozesurako optimizazio aholkuak ematen dizkie.



HILTI

Ez ditu profesionalentzako eskuko erremintak bakarrik saltzen. Dazkan bezeroen tresna-sortak kudeatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu enpresa honek.



Orona

Ez ditu igogailuak bakarrik saltzen. Konpainiak gainera, igogailuen erabilgarritasuna bermatzen duten zerbitzuak eskaintzen ditu.



Michelin

Pneumatikoak saltzeaz gain, *Michelin Fleet Solutions*-ek kilometroko ordainketakoa den zerbitzua, egoeraren ebaluazioak (pneumatikoei) egitea, etab. eskaintzen du.



Apple

Ez du *hardware*-a bakarrik saltzen. Zerbitzu konpainia bat bilakatzeko asmoz, bere *Apple Streaming TV* zerbitzu berria saltzen du Samsung telebistetan.



Audi

Ez ditu ibilgailuak bakarrik saltzen. *Audi Unite* zerbitzua ere eskaintzen du, besteak beste, familia desberdinen artean Audi auto berrien erabilera partekatzeko.



Danobat

Ez du edozein makina mota fabrikatzen. Bakoitza bakarra da, bezeroaren neurrira. Gainera, diagnosi, urrutiko laguntza, edota formakuntzako zerbitzuak eskaintzen ditu makinaren operadoreentzat, etab.



Siemens Gamesa

Aerosorgailuak ekoizteaz gain, Siemens Gamesak bere bezeroen prozesuen hobekuntzarako zerbitzu ezberdinak ere eskaintzen ditu, formakuntza, guneen operazioa edo promozio ekintza bera bezalakoak.



MAN

Kamioiak saltzeaz gain, *MAN Digital Services*-ek neurrirakoak diren irtenbide digitalak ere eskaintzen ditu. *Marketplace app*-ean egindako erreserba baten bitartez, bere bezeroaren negozioa optimizatzen du.



Alfa

Ez ditu josteko makinak bakarrik saltzen. Jostean bere erabiltzaileek dituzten arazoetan laguntza, tailer eta lehiaketa batzuetan parte-hartzea, zein haien museoa bisitatzeko aukera ere eskaintzen ditu.



Xerox

Ez dihardu fotokopiagailu salmentan bakarrik, orriko ordainketarako zerbitzuak, dokumentuen ekoizpen eta kudeaketa, azpikontratazio zerbitzuak (enpresagintza-prozesuenak) etab. eskaini egiten ditu, besteak beste.



Vidrala

Ez da beira ezberdinetako ontzien hornitzailea soilik. *Encirq* zerbitzu berriaren bitartez, fabrikatu, bete eta logistikaren arduraren hartzen du. Bere bezeroen eragiketen alderdi handi bat ere bere gain hartuz.



Bimbo

Ez du ogia soilik saltzen, zerbitzuen integratze bidea ere hartu du Bimbok. Zuzenean bere salmenta-puntuetara banatzen baitu, bere produktuak freskoak direla ziurtatzeko, zein bere gaitasun logistiko eta komertzialez baliatzeko.



CAF

CAF-ek trenbide-osagaiak eta material errodanteak barne hartzen dituzten produktuak eskaintzeaz gain, zerbitzu garatu bat ere dauka, trenbideetako ibilgailuen birgaikuntzan zentratuta dagoena.



Dell

*Hardware*-a saltzeaz gain, xede erabiltzaileei emateko formakuntza, haien datuen administrazio zentruaren sinplifikazio zerbitzu anitz, etab. eskaintzen ditu.



Caterpillar

Ez da soilik eraikuntzarako makineria ekoizten duen enpresa. Urrutiko miaketa, zein tresneriaren kokapena 24 orduz, monitorizazioa, etab. barne hartzen ditu.



Urola

Ez ditu bakarrik ontziak ekoizten dituzten makinak saltzen. Bere bezeroaren etekinak hobetzen dituzten zerbitzuak eskaintzen ditu, besteak beste.



Repsol

Petrolio-enpresa izateaz gain, mugikorraren bidez ordaintzeko *Waylet app*-a, Amazon eskarien bilketa, autogarriketa sistemak, etab. eskaintzen ditu.